

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5375

*EBAZPENA, 2022ko azaroaren 23koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordearena, zeinaren bidez batzordeburua eta bokalak izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta zuraren katea digitalizatzeko 2022ko uztailaren 27ko Aginduan ezarritako laguntzen balorazio-batzorderako.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko uztailaren 27ko Aginduaren 12. oinarriaren 2. paragrafoan arautzen da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan agindutako ebaluazio-organoa. Agindu horren bidez onartzen dira, 2022rako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

Oinarri horren arabera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren Ikerketa Programen arduraduna izango da ebaluazio-batzordeko burua. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikari bat eta Hazi fundazioaren ordezkari bat izango dira bokalak, eta lehenengoak idazkari-lanak beteko ditu. Balorazio-batzordea osatzerakoan, ahaleginak egingo dira emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, eta trebakuntza, kompetentzia eta prestakuntza egokia izan beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak behar bezala jakitea barnean dela. Horiek Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko dira, eta ebazpen horretan izendatuko da idazkaria.

Aurrekoaren arabera, honako hauek osatuko dute ebaluazio-batzordea:

Batzordeburua:

M.<sup>a</sup> Luisa Fraile Correa andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Ikerketa Programen arduraduna (titularra).

Elisa Torre-Enciso Enciso andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna (ordezkoa).

Bokalak:

Xabier Andrés Uriarte jauna, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria; idazkaria izango da (titularra).

Idoia Sasigain Sáenz de Buruaga andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria (ordezkoa).

Fernando Corcuera jauna, Hazi fundazioko teknikari ordezkaria, integrazio-sistemen arloko arduraduna (titularra).

Gregorio Manrique jauna, Antolakuntza eta Transformazio Digitaleko Unitateko zuzendaria (ordezkoa).

Honako hauetan ezarritakoaren ondorioetarako, ebazpen honen bidez, organo horren osaera ezartzen da, eta osaera hori argitaratzeko agintzen da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren

49.2 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 23a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,  
BITTOR OROZ IZAGIRRE.